

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Patronalaren monopolioa indargabetzeko tenorea

PSOE, Unidas Podemos eta EH Bilduk 2012ko lan erreforma indargabetzeko lortutako akordioak hautsak harrotu zituen pasa den astean. CEOE Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioko lehendakariak, Antonio Garamendik, berehala utzi zuen bertan behera patronalaren parte hartzea elkarritzeta sozialean. Lortutako akordioak «enpresak kaltetzen» zituela esan zuen, baita «nazioarteko konfiantzaren gale-
ra» ekarriko zuela gaineratu ere. Asteburuan argudio berberak errepikatu zituen Iñigo Urkulluk.

Gauzak nahiko argi daude 2012ko lan erreformaren inguruan. Alderdi politikoen arteko akordioa logika politikoan kokatzen da. EAJren kasuan, izandako jarrera al-daketak erakusten du eroso sentitzen dela saltsa horretan: batzuetan aldetak babestu, beste batzuetan aurka agertu, baina beti-beti enpresari-
en interesak konprometitu gabe. Argazkian nabarmendu dena, hori bai, patronala da. Oso adierazpen borobilak egin ditu «interes orokorraren» izenean eta horrek galdera batzuk sortzen ditu patronalak jokatzen duen paperaren inguruan. Adibidez, zergatik dago patronal bakar bat? Ez

al dago beste enpresari elkarterik? Nola neurtzen da enpresari elkartearen ordezkari-
tza? Alderdi politikoen eta sindikatuen kasuan, gauzak nahiko argi daude: proiektu desberdinak antolatze-
ko aukera dago eta bakoitzak duen indarra hauteskunde-
en bitartez neurtzen da. Patronalaren kasuan ez dugu horrelakorik ezagutzen.

Egia da zenbait kasutan sektorekako enpresari elkarteak daudela eta bestelako elkarte enpresarialak ere daudela, baina, aldiz, lan harremanak, fiskalitatea eta beste hainbat esparru orokor jorratzean, ordezkari-
tza bat eta bakarra agertzen da beti: Estatuan CEOE, Euskal Herrian CEN Nafarroako Enpresaburuen Elkargoa Nafarroan eta Confebask EAEn eta, gero, herrialde bakoitzeko sukurtsalak. Gainera, oso jeloskor jartzen dira norbait

egun duten monopolioaren aurka agertzen denean. Horrela gertatu zen 2013an Bizkaian Cecobi eta Bizkaiden-
dak elkartearen artean; edo geroago Gipuzkoan Garen enpresari elkartearen sortzean. Beharbada, ordezkari-
tza-
aren monopolioaren inguruko azken gorabehera esanguratsua kooperatiben lege berriarekin gertatu da. Lanbiden kooperatiben ordezkari-
ei sarrera emateko proposamenari tinko egin zion aurre Confebask-
ek eta enpresaren ordezkari bakarra izaten jarraitzea lortu zuen. Merkatu librea bai, besteentzat; enpresari-
en ordezkari-
tza-
aren monopolioa zalantzan jartzean, orduan ez lehiakortasunik, ez aniztasunik, ez demokraziarik, ezertxo ere ez.

Legeak onartzen du patronalak, sindikatuak bezala, interlokutorea izan behar duela, baina ez dago behar bezala araututa nola zehaztu behar den ordezkari-
tza hori. Ez dago finkatuta elkarte bat baino gehiago egon behar den

Legeak onartzen du patronalak, sindikatuak bezala, interlokutorea izan behar duela, baina ez dago behar bezala araututa nola zehaztu behar den ordezkari-
tza hori

ala ez, bakoitzak duen pisua nola neurtu behar den, eta ez da hauteskunde prozesurik aurreikusten. Beraz, ez dago bide publiko fede-
emailerik zehaztuta enpresari-
en elkarteek duten ordezkari-
tza-
neurtzeko. Eta hutsune horretaz baliatu dira batzuk interes partikular-
rak enpresari-
en interes orokor gisa aurkezteko. Are, enpresari askok sarri ez dute bat egiten patronalak hartzen dituen jarre-
ra erreakzionarioekin. Horregatik, hainbeste maite du-
ten merkatu librea gauzatu beharko lukete enpresari-
ek euren esparruan ere. Bada garaia enpresari-
en ordezkari-
tza zehazteko hautagaiak aurkeztu, hauteskundeak egin eta bakoitzak lortutako botoak kontatzeko. Patronalaren monopolioa disolbatzeko tenorea iritsi da, besteak beste, ekonomia eta demokrazia indartzeko. •